

D. TORREZABAL KULTUR ETXEA

NIRE BIGARREN ETXEA

1994ko azaroan ireki zenetik, Torrezabal Kultur Etxea eraikina baino askoz gehiago izan da, bertako jendearen erritmoaren arabera mugitzen den eremu bizia, alegia. Hogeita hamar urtetan baino gehiagotan, bertan kontzertuak, antzerkiak, erakusketak, tailerrak, zinea, topaketak eta ospakizunak egin dienez, benetako erreferentzia-zentroa da udalerrirako.

Hemen, sorkuntzak eta partaidetzak bat egiten dute. Torrezabalek ez du kultura bakarrik eskaintzen: bertako erkidegoarekin eratzen du. Bertako areto eta eszenatokietan, hainbat belaunalditako artistak nahiz ikus-entzuleak hazi dira, eta, era berean, herriko sare soziala eratzen duten elkarteen, giza taldeen zein erakundeen elkargunea ere izan da.

Bertako irisgarritasunak hobera egin duenez, gero eta jende gehiagok (mugikortasun urrikoak edo ikusmen urrikoak barne) bertako gunez gozatzen du bete-betean. Inklusioarekin eta berdintasunarekin hartutako konpromiso horri esker, bere zeregina indartu du partaidetzazko eremu zabal eta hurbil moduan.

Torrezabalen, udalerriko emakumeek jabekuntzarako eta ikaskuntzarako lekua aurkitu dute. Bere egunean ikastaroen eskaintzaren zati bat ezeztatu nahi izan zenean, emakumeak antolatu egin ziren, sinadurak bildu zituzten eta eustea lortu zuten. Indar kolektiboaren adierazgarri izan zen, eta kideza zein leku honen garrantzia berretsi zituzten.

Izan ere, hemen, artea eta kultura ez ezik, ekintza politiko eta soziala ere egiten da, Kultur Etxearen nortasuna sendotzen jarraitzen duen begirada kritiko eta eraldatzailearen bitartez.

Bertako aretoetan ere, estreinaldiko filmak ematen dira prezio merkeetan, eta, programazio horretan, umeentzako nahiz familiarentzako zinea eskaintzen da. Belaunaldien arteko elkargunea ere bada, oraindik erronkarik badugu ere, hau da, migratzaileei eskaintza kulturala hurbiltzea, Galdakaoren ezaugarri bereizgarri den begirada dibertso eta anitza zabaltzeko asmoz.

Torrezabalen, gainera, institutueta graduazioak, Batxilergoko ekitaldiak, aurkezpenak eta tokian tokiko ekitaldiak egiten direnez, erkidegoak bere

**AKTIBATUZ: BIZIAREN, OSASUNAREN ETA EMAKUMEEN OROIMENAREN
IBILBIDEAK.**

ZAINKETA KOMUNITARIOEN IBILALDIA

lorpenak ospatzeko eta bere historiak partekatzeko aukeratzen duen eszenatokia da.

Hogeita hamar urteren ostean, Torrezabal Kultur Etxea biziaren, kulturaren eta erresistentzia kolektiboaren erakusgarri da oraindik. Bertan, hain zuzen ere, artea nahasten da hitzarekin; oroimena, etorkizunarekin; eta herritarrak, sorkuntzarekin.

Eremu honek jendearekin batera hazten jarraitzen du, eta egunez egun baieztatzen du kultura bera herria egiteko modua dela.